ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2017ko urtarrilaren 27a, ostirala • 11 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 9/2017 Foru Agindua, aldatzen duena urtarrilaren 18koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 13ko 7/2010 Foru Agindua, onartzen dituena 181 eredua, ondasun higiezinekin zerikusia duten mailegu, kreditu eta finantza eragiketei buruzko aitorpen informatiboari buruzkoa, eta bai ere ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak**

Foru Agindu honek aldatu egiten ditu 181 eredua aurkezteko sortzen diren fitxategiek bete behar dituzten diseinu fisiko eta logikoak, informazio eremu berriak sartzearren eta, hartara, egokiro jasotzearren aurreko ekitaldietan bidegabeki ordainduteko interesak itzultzeko eragiketei dagokien informazioa eta ereduaren posizioen kopurua birkodetzearren.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak hari honetara emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 7/2010 Foru Agindua, aldatzen duena urtarrilaren 13koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 13ko 7/2010 Foru Agindua, onartzen dituena 181 eredua, ondasun higiezinekin zerikusia duten mailegu, kreditu eta finantza eragiketei buruzko aitorpen informatiboari buruzkoa, eta bai ere ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak.

Aldatu egiten da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 13ko 7/2010 Foru Aginduaren II. Eranskin –7/2010 Foru Agindu horren bidez onarten da 181 eredua, ondasun higiezinekin zerikusia duten mailegu, kreditu eta finantza eragiketei buruzko aitorpen informatiboari buruzkoa, eta bai ere ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak– , eta Foru Agindu honetan I. Eranskin gisa ageri denarekin ordezten.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera 2016ko ekitaldiko informazioaz aurkezten diren aitorpenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 18a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTINEZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA

## 181 EREDUAREN FITXATEGIEK EDUKI BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK ETA FISIKOAK
## ERREGISTROEN DESKRIPZIOA

### A) ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKUR DAITEZKEEN EUSKARRIEN EZAUGARRIAK

Ondasun higiezinen inguruko maileguei, kredituei eta finantza eragiketei buruzko aitorpen informatiboaren 181 ereduaren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak ondoko ezaugarriak eduki behar ditu:

- Mota: DVD-R edo DVD+R
- Edukiera: 4,7 GB gehienez
- UDF fitxategi sistema
- Aurpegi bat, geruza soila

Fitxategi partzialek erregistro osoak eduki behar dituzte, hau da, fitxategia ezin da inolaz ere zatikatu fitxategi partzialetan erregistro osagabeak utzita.

### B) DISEINU LOGIKOAK

### ERREGISTROEN DESKRIPZIOA

Aitortzaile bakoitzarentzat bi erregistro mota sartuko dira; lehen zuriunearen arabera bereziko dira ondoko irizpide hauen arabera:

**1 mota**: Aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. Foru agindu honen eranskineko eta atal hauetan geroago agertuko diren erregistro motetatik 1 motako erregistroaren diseinua.

**2 mota**: Mailegu hartzailearen erregistroa. Foru agindu honen eranskineko eta atal hauetan geroago agertuko diren erregistro motetatik 2 motako erregistroaren diseinua.

Aurkezpen hurrenkera erregistro motaren araberakoa izango da; 1 motako erregistro bat bakarrik egongo da eta 2 motakoak aitorpenean dauden mailegu hartzaileak beste izango dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuineko zuriuneak hutsik utzi behar dira, eta letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik ez bokal azentudunik erabili gabe.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Horrela, “Ñ” letrak ASCII 209 (Hex. D1) balioa izango du eta “Ç” (ze gakoduna) letrak ASCII 199 (Hex. C7).

Zenbakizko eremu guztiak eskuinean lerrokaturik eta ezkerrean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izan behar dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, zenbakizko eremuetan zeroak jarri behar dira eta alfabetikoak eta alfanumerikoak zuriunez bete behar dira.





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**B. 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 1 | Zenbakizkoa | *ERREGISTRO MOTA*<br>Finkoa, "**1**" (bat) zenbakia. |
| 2-4 | Zenbakizkoa | *AITORPEN EREDUA*<br>Finkoa, '**181**'. |
| 5-8 | Zenbakizkoa | *EKITALDIA*<br>Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | *AITORTZAILEAREN IFZ*<br>Aitortzailearen IFZ adierazi behar da.<br>Eremu hau eskuinaldean lerrokatu behar da, azken posizioan control karakterea jarri behar da eta ezkerreko posizioetan zeroak idatzi behar dira, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautu dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako erregelen arabera (ALHAO, 88. zk., abuztuaren 4koa). |
| 18-57 | Alfanumerikoa | *AITORTZAILEAREN SOZIETATE IZENA*<br>Sozietatearen izena idatzi behar da, osorik eta anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da jarri, inolaz ere, mer kataritzako izenik. |
| 58 | Alfabetikoa | *EUSKARRI MOTA*<br>Gako hauetako bat jarri behar da:<br>"C": Informazioa DVD-R edo DVD+R euskarrian aurkezten da.<br>"T": Euskarria baliabide telematikoen bidez aurkezten da. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | *HARREMANETARAKO PERTSONA*<br>Harremanetarako pertsonaren datuak.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>59-67 TELEFONOA:<br>Bederatzi zuriune; zenbakiz eman behar da.<br>68-107 ABIZENAK ETA IZENA:<br>Lehen abizena, zuriune hutsa, bigarren abizena, beste zuriune bat hutsik, eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez. |
| 108-120 | Zenbakizkoa | *AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA*<br>Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.<br>13 zuriuneko zenbakizko eremua.<br>Zenbaki sekuentziala izan behar da, eta lehenengo hiru digituak 181 izan behar dira (ereduaren kodea). |
| 121-122 | Alfabetikoa | AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA<br>Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauetako bat bete behar da nahitaez:<br>121 AITORPEN OSAGARRIA:<br>Aitorpenaren helburua ekitaldi berean aurretik aurkeztu zen beste aitorpen batean azaldu behar izan arren aipatu ere ez ziren hipoteka maileguak sartzea bada, "C" jarri behar da.<br>122 ORDEZKO AITORPENA:<br>Aitorpena ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat osoosorik deuseztatu eta ordezkatzeko aurkeztu bada, "S" jarri behar da.<br>Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu. |
| 123-135 | Zenbakizkoa | *AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA*<br>"*AITORPEN OSAGARRIA*" eremuan "C" jarri bada edo "S" "*ORDEZKO AITORPENA*" eremuan, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.<br>13 zuriuneko zenbakizko eremua.<br>Gainerako kasuetan ZEROAK idatzi behar dira. |
| 136-144 | Zenbakizkoa | *AITORTUEN ERREGISTROAK, GUZTIRA*<br>Erakunde aitortzaileak 2 motako xehetasun erregistroan jasotako erregistroen guztirako kopurua |

**B. 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | adierazi behar da. Aitortu bera hainbat erregistrotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz konputatu behar da (2 motako erregistroen kopurua.). |
| 145-159 | Zenbakizkoa | *AMORTIZATUTAKO KAPITALA, GUZTIRA*<br>Aitortuen erregistroetako “KAPITALA AMORTIZATZEKO EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA” eremuan (127-139 zuriuneak) jarritako kopuruen guztirako batura jarri behar da, zeinurik eta hamartarren komarik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>145-157 Amortizatutako kapitalaren guztirako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>158-159 Amortizatutako kapitalaren guztirako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |
| 160-174 | Zenbakizkoa | *EKITALDIAN ORDAINDUTAKO KORRITUAK, GUZTIRA*<br>Aitortuen erregistroetako “EKITALDIAN ORDAINDUTAKO KORRITUAK” eremuan (140-152 zuriuneak) ageri diren kopuruen guztirako batura jarri behar da, zeinurik eta hamartarren komarik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>160-172 Korrituen guztirako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>173-174 Korrituen guztirako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |
| 175-189 | Zenbakizkoa | *BESTEREN FINANTZAKETAREN ONDORIOZKO GASTUAK, GUZTIRA*<br>Aitortuen erregistroetako “BESTEREN FINANTZAKETAREN ONDORIOZ EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA” eremuan (153-165 zuriuneak) ageri diren kopuruen guztirako batura jarri behar da, zeinurik eta hamartarren komarik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>175-187 Besteren finantzaketaren ondoriozko gastuen guztirako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>188-189 Besteren finantzaketaren ondoriozko gastuen guztirako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |
| 190-203 | Zenbakizkoa | *MAILEGUEN ETA KREDITUEN ABENDUAREN 31KO SALDOEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA*<br>Aitortuen erregistroetako “ABENDUAREN 31KO SALDOA” eremuan (208-219 zuriuneak) ageri diren kopuru guztien batura jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>190-201 Maileguen eta kredituen abenduaren 31ko saldoen guztirako zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badauka, zeroak idatzi behar dira.<br>202-203 Maileguen eta kredituen abenduaren 31ko saldoen guztirako zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badauka, zeroak idatzi behar dira. |
| 204-487 | — | *HUTSIK* |
| 488-500 | Alfanumerikoa | *ZIGILU ELEKTRONIKOA*<br>Eremu hau banakako euskarriei zigilu elektronikoa jartzeko da. Horretarako AFAren programa ofizialak erabili behar dira. Bestela, eta taldeko euskarria aurkezten denean, hutsik utzi behar da. |

- Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.
- Edukirik gabeko eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak hutsik utzi behar dira.
- Eremu numerikoak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira eta eskuinaldean hutsik utzi behar dira. Letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik azaldu ezean.





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**C. 2 ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| 1 | Zenbakizkoa | *ERREGISTRO MOTA*<br><br>Finkoa, "**2**". |
| 2-4 | Zenbakizkoa | *AITORPEN EREDUA*<br><br>Finkoa "**181**". |
| 5-8 | Zenbakizkoa | *EKITALDIA*<br><br>1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | *AITORTZAILEAREN IFZ*<br><br>1 motako erregistroko zuriune hauetan dagoena idatzi behar da. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | *AITORTUAREN IFZ*<br>Aitortuak Espainian emandako IFZ badauka, ondokoa jarri behar da:<br>- Pertsona fisikoa bada, beraren IFZ jarri behar da, identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera eta erabilera arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako arauen arabera (ALHAO, 88. zk., abuztuaren 4koa).<br>- Aitortua pertsona juridikoa edota errenta egozketaren arau bideko erakundea bada (ondasun erkidegoa, sozietate zibila, jaso gabeko jaraunspena, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.<br>14 urtetik beherakoak zergen arloko harremanetan edo zergetan eragina duten harremanetan identifikatzeko, 14 urtetik beherako per tsonaren datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) eta legezko ordezkariarenak agertu behar dira.<br>Eremua eskuinean lerrokatu behar da. Azken zuriunean kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.<br>Eremu honetan Espainian emandako IFZak bakarrik jar daitezke. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | *LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ*<br><br>Aitortuak 14 urte baino gutxiago baditu, eremu honetan beraren legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorea) identi fikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, IFZren inguruko bete beharrak eta haren eraketa arautu dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan ezarritako erregelekin bat etorriz (ALHAO, 88. zk., abuztuaren 4koa).<br><br>Eremua eskuinean lerrokatu behar da. Azken zuriunean jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.<br><br>Gainerako kasuetan hutsik utzi behar da. |
| 36-75 | Alfanumerikoa | *AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA*<br><br>a) Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar da: lehenengo abizena, zuriune bat, bigarren abizena, zuriune bat eta izen osoa, hurrenkera honexetan nahitaez.<br><br>14 urtetik beherakoa bada, eremu honetan beraren izen-abizenak idatzi behar dira.<br><br>Pertsona fisikoak abizen bat bakarrik badauka, lehenengo abizena idatzi behar da, gero tarte bat utzi eta azkenik izena, hurrenkera honetan.<br><br>b) Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, sozietatearen izen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe. |
| 76-77 | Zenbakizkoa | *PROBINTZIAREN KODEA*<br>Orokorrean, aitortuaren egoitza dagoen probintziaren edo hiri autonomoaren kodea sartu behar da (bi digitu numeriko). Hona hemen kodeen taula: |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ALBACETE | 02 | JAEN | 23 |
| ALACANT | 03 | LEÓN | 24 |
| ALMERIA | 04 | LLEIDA | 25 |
| ARABA | 01 | LUGO | 27 |
| ASTURIAS | 33 | MADRIL | 28 |
| AVILA | 05 | MALAGA | 29 |
| BADAJOZ | 06 | MELILLA | 52 |
| BARTZELONA | 08 | MURTZIA | 30 |
| BIZKAIA | 48 | NAFARROA | 31 |
| BURGOS | 09 | OURENSE | 32 |

**C. 2 ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | CACERES 10 · PALENCIA 34<br>CADIZ 11 · LAS PALMAS 35<br>KANTABRIA 39 · PONTEVEDRA 36<br>CASTELLO 12 · ERRIOXA 26<br>CEUTA 51 · SALAMANCA 37<br>CIUDAD REAL 13 · S.C.TENERIFEKOA 38<br>KORDOBA 14 · SEGOVIA 40<br>A CORUÑA 15 · SEVILLA 41<br>CUENCA 16 · SORIA 42<br>GIPUZKOA 20 · TARRAGONA 43<br>GIRONA 17 · TERUEL 44<br>GRANADA 18 · TOLEDO 45<br>GUADALAJARA 19 · VALENTZIA 46<br>HUELVA 21 · VALLADOLID 47<br>HUESCA 22 · ZAMORA 49<br>BALEAR UHARTEAK 07 · ZARAGOZA 50<br><br>Behin betiko helbiderik gabeko ez egoiliarrek 99 jarri behar dute. |
| 78 | Alfabetikoa | *IDENTIFIKAZIO MOTAREN GAKOA*<br>Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketa identifikatzen duen gakoa jarri behar da; ondokoak dira:<br>Gakoa Deskripzioa<br>C Bezeroaren kontuaren kodearen (BKK).<br>O Bestelako identifikazioa |
| 79-82 | Alfanumerikoa | *IBAN KODEAREN URREZENBAKIA*<br>(HIPOTEKA) Identifikazio motaren gakoa "C" bada, eremu honetan IBAN kodea (banku kontuen nazioarteko kodeak) jarri behar da.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>79-80 HERRIALDEAREN KODEA ISO: eremu alfabetikoa.<br>81-82 KONTROL DIGITUA<br>Banku jaulkitzaileak aitortzaileari erakunde kodea esleitu ez badio, hau da, aitortzaileak IBAN koderik ez badauka, eremua hutsik utzi behar da. |
| 83-102 | Alfanumerikoa | *MAILEGU, KREDITU ETA BESTELAKO FINANTZA ERAGIKETEN IDENTIFIKAZIOA*<br>Mailegu, kreditu eta bestelako finantza eragiketa bakoitzari erakunde aitortzaileak ezarritako identifikazio zenbakia adierazi behar da.<br>Ondokoa jarri behar da:<br>1. Identifikazio motaren gakoa "C" bada, bezero kontuaren kodea jarri behar da, honela:<br>83-86 Erakundearen kodea<br>87-90 Sukurtsalaren kodea<br>91-92 Kontrol digituak<br>93-102 Kontuaren zenbakia<br>2. Identifikazio motaren gakoa "O" bada, eragiketaren iden tifikazioa idatzi behar da. |
| 103-110 | Zenbakizkoa | *ERAGIKETA DATA*<br>Mailegu, kreditu edo bestelako finantzaketa eragiketaren eraketa edo aldaketa eguna zehaztu behar da. Eremu honetan hiru atal daude:<br>103-106 Zenbakizkoa URTEA<br>107-108 Zenbakizkoa HILA<br>109-110 Zenbakizkoa EGUNA<br>Kitapen eragiketetan ("Eragiketaren xedea" eremuan "C" jarrita), eremu honetan mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa eratu den data zehaztu behar da. Salbuespena: eratu ondoren aldaketa eragiketa bat egin bada, aldaketaren data adierazi behar da.<br>Aitorpenaren ekitaldian egindako aldaketa eta kitapen eragi ketetan ("Eragiketaren xedea" eremuan |

Página **5** de **13**

**C. 2 ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | "J" jarrita), eremu honetan mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa aldatu den data zehaztu behar da. |
| 111-113 | Zenbakizkoa | *ERAGIKETAREN IRAUPENA*<br>Mailegu, kreditu edo bestelako finantzaketa eragiketaren iraupena zehaztu behar da, hiletan adierazita. |
| 114-126 | Zenbakizkoa | *MAILEGU, KREDITU ETA BESTELAKO FINANTZA ERAGIKETEN ZENBATEKOA*<br>Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketa bakoitzaren zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>114-124 Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>125-126 Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean.<br>Eragiketaren gakoa "M" edo "J" bada eta finantzaketaren zenbatekoa gehitu bada, eragiketaren guztirako zenbatekoa adierazi behar da, hau da, hasierako zenbatekoaren eta gehikuntzaren batura.<br>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko "ERAGIKETAREN AZPIGAKOA" eremuaren balioa "5" denean. |
| 127-139 | Zenbakizkoa | *KAPITALA AMORTIZATZEKO EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA*<br>Ekitaldian, edo eragiketa aldatu arte, kapitala amortizatzeko ordaindutako zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>127-137 Ekitaldian kapitala amortizatzeko ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>138-139 Ekitaldian kapitala amortizatzeko ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean.<br>"ERAGIKETAREN XEDEA" eremuan "M" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>"ERAGIKETAREN XEDEA" eremuan "J" gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da, kitapenean ordaindutako kopurua barne.<br>"ERAGIKETAREN XEDEA" eremuan "C" gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da, kitapenean ordaindutako kopurua barne.<br>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko "ERAGIKETAREN AZPIGAKOA" eremuaren balioa "5" denean. |
| 140-152 | Zenbakizkoa | *EKITALDIAN ORDAINDUTAKO KORRITUAK*<br>Ekitaldian edo eragiketa aldatu arte, ordaindutako korrituen zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>140-150 Ekitaldian ordaindutako korrituen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>151-152 Ekitaldian ordaindutako korrituen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**C. 2 ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “M” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “J” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “C” gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” eremuaren balioa “5” denean. |
| 153-165 | Zenbakizkoa | *BESTEREN FINANTZAKETAREN ONDORIOZ EKITALDIAN ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA*<br>Ekitaldian, edo eragiketa aldatu arte, besteren finan tzaketaren ondorioz izan diren gastuen zenbatekoa adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.<br>Zenbatekoak EUROtan eman behar dira.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>153-163 Ekitaldian besteren finantzaketaren gastuengatik ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>164-165 Ekitaldian besteren finantzaketaren gastuengatik ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi badagokie, zenbatekoa EZ da lainduko haien artean.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “M” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “J” gakoa jarri bada, aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>“ERAGIKETAREN XEDEA” eremuan “C” gakoa jarri bada, epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoa zehaztu behar da.<br>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” eremuaren balioa “5” denean. |
| 166-171 | Zenbakizkoa | *PARTAIDETZA EHUNEKOA*<br>Hainbat aitortu egonez gero, erregistro bat bete behar da bakoitzeko; erregistro bakoitzean aitortuaren partaidetza ehunekoa zehaztu behar da.<br>Eremu honetan bi atal daude:<br>166-168 Zenbakizkoa Zati osoa: ehunekoaren zati osoa jarri behar da (ez badago, ZEROAK jarri).<br>169-171 Zenbakizkoa Zati hamartarra: ehunekoaren zati hamartarra jarri behar da (ez badago, ZEROAK jarri behar dira).<br>Mailegu, kreditu edo bestelako finantza eragiketan aitortu bat bakarrik badago, 100 jarri behar da zati osoan eta 000 hamartarrean.<br>Aitorpenaren aurreko ekitaldiren batean kitatu bada finantzazio eragiketa, kitatu aurretiaz kitatzeke geratzen zen ehunekoa adieraziko da. |
| 172 | Alfabetikoa | *ERAGIKETAREN XEDEA*<br>Eragiketaren xedea adierazten duen gakoa hautatu behar da; hona zerrenda:<br>A Eraketa.<br>M Aldaketa.<br>C Kitapena.<br>J Aldaketa eta kitapena aitorpenaren ekitaldian. |

Página **7** de **13**

**C. 2 ERREGISTRO MOTA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

| ZURIUNEAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIPZIOA |
|---|---|---|
| | | F Aurreko ekitaldietan abiarazitako eragiketak.<br><br>Finantzaketa eragiketa aitorpenaren ekitaldian formalizatu bada, A gakoa jarri behar da. Gainerako kasu guztietan F jarri behar da, eragiketa aldatu edo kitatu ez bada.<br><br>Ekitaldi batean aitorpenean jasotako finantzaketa eragiketaren datuetako bat aldatzen bada (ondasun higiezinaren xedea barne), M gakoa jarri behar da. Halako kasu etan erregistro bat egin behar da eragiketa xede bakoi tzeko; horrela erakunde aitortzaileak, eragiketa gauzatutako moduaren arabera, hauxe jarri behar du:<br><br>- A edo F gakoa: erregistroak eragiketaren hasierako baldintzen arabera bete behar dira eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik “Abenduaren 31ko saldoa” eremuan.<br><br>- M gakoa: erregistroak eragiketaren baldintza berrien arabera bete behar dira eta aldaketa egunetik abenduaren 31ra arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira (eragiketa kitatu ez bada).<br><br>Epealdian aitorpenean jasotako eragiketa kitatzen bada, “C” gakoa jarri behar da. Kasu honetan erregistroetan epealdiaren hasieratik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira.<br><br>Ekitaldian aldaketa eragiketa bat eta kitapen eragiketa bat gertatu badira, hauxe jarri behar da:<br><br>- A edo F gakoa: erregistroak eragiketaren hasierako baldintzen arabera bete behar dira eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik “ABENDUAREN 31KO SALDOA” eremuan.<br><br>- J gakoa: erregistroetan aldaketa egunetik kitapen egunera arte ordaindutako zenbatekoak zehaztu behar dira. Kasu honetan ez dago ezar jarri beharrik “ABENDUAREN 31KO SALDOA” eremuan.<br><br>Eremu hori ez da beteko ondasun higiezin bat erostera EZ bideratutako finantzatze eragiketetan (abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena, atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra jasotzeko) eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen gainean; hau da, ez da beteko “ERAGIKETAREN AZPIGAKOA” eremuaren balioa “5” denean. |
| 173 | Alfabetikoa | *ERAGIKETA MOTA*<br>Eragiketa mota zehaztu behar da ondoko gakoetako bat hutatuta:<br><br>A Hipoteka maileguak.<br>B Gainerako maileguak.<br>C Hipoteka kredituak.<br>D Gainerako kredituak.<br>E Beste finantza eragiketa batzuk. |
